THINK TANK

Etorkizuneko lanaren inguruko deliberazio prozesua: 13. Lan-dokumentua

LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA: OINARRI KONTZEPTUALAK ETA LEHEN GERTURAPENA

(2021eko urriaren 21a)


Sarrera

Dokumentu hau deliberazio taldearen bigarren faseko hirugarren saioari dagokio. Aurreko saioetan fase berri honen oinarriak jarri eta lanaren zentzua landu ziren. Hirugarren saioan lankidetzazko gobernantza aztertu zen. Kontzeptu honen inguruko deliberazioak helburu bat du fase honetan: esperimentazioaren bidez lanaren zentzua lantzeko metodologia bat definitzen denerako, politiken ekosistemako eragileen arteko gobernantza eredu berri bat adostuta izatea, metodologia honekin enpresetara modu eraginkorrean iritxi ahal izateko.

Saioan zehar lankidetzazko gobernantzaren ezaugarriak landu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) eskualdeetako garapen agentziekin eta lanbide heziketako zentroekin jadanik adosturiko gobernantza eredu bat aurkeztu zen. Proposamena eredu honetatik abiatu eta hau egokitzea izan zen, think tankean parte hartzen duten beste eragileek ere eredu honetan euren tokia izan dezaten. Lan dokumentu honetan, alde batetik aurkeztutako eredua jasotzen da eta, bestetik, partaideek eredu hau ber-definitzeko egindako ekarpenak.

Aurkeztutako eredua

Jarraian aurkezten den irudiak abiapuntuan hausnarketarako proposatu zen gobernantza eredua jasotzen du.



Aurreko ereduak GFAren politiken baitan, eta aldundiarekin elkarlanean, eskualde garapen agentzientzako eta lanbide heziketa zentroentzako adostu ziren rolak jasotzen ditu.

Eredu berriaren eraikuntzarako proposamenak

Deliberazio taldek partaideei aurreko eredutik abiatuta, etorkizunean lanaren zentzuaren inguruko metodologia bat enpresetara eramateko zein gobernantza eredurekin lan egin beharko litzatekeen galdetu zitzaien. Horretarako gogora arazi zen deliberazio taldean gaur egun, ereduan jasotako agentzia eta zentroez gain, Adegi, Asle eta merkataritza bazkundea ere ari direla lanean.

Datozenak, dinamikaren emaitzetatik jasotzen diren ekarpenak dira:

- Aurkeztutako eredua egokia da, agentziez eta lanbide heziketako zentroez gain garrantzitsuak dira enpresa elkarteak eta unibertsitatea ere
- Gai honetan enpresa eta adituen arteko zubi lana egingo duten eragileak behar dira, agentziak, enpresa elkarteak eta klusterrak aipatu dira, iritzi desberdinak atera direlarik bakoitzaren egokitasunaren inguruan
- Sentsibilizazioa eta difusioa lan garrantzitsuak izango dira. Erakunde publikoen papera garrantzitsua izango da honetan, nahiz eta beste eragile batzuek ere parte hartu ahal izan
- Prozesuaren momenturen batean, gaur egun unibertsitatea egiten ari den papera garatzeko, aholkularitza enpresen beharra aipatu da. Toki honi dagokionez ere aipatu da unibertsitateak hasieran jakintza sortuko duela, ondoren aholkularitzek egin dezaketela gertutik lan enpresekin, baina amaieran unibertsitateak berriro prozesu horien inguruko informazioa jasotzea garrantzitsua dela
- Esperimentazioan diharduten enpresen papera eredu bat diseinatzea da non enpresek langileari balioak eta estrategiak bermatuko dizkien
- Enpresa bakoitzak kalitatea edo segurtasuna lantzeko erreferentziazko pertsona bat duen moduan, honetarako ere eduki beharko luke
- Guzti honek lurralde estrategiaren parte izan behar du eta, adibidez, Eusko Jaurlaritzarekin ere lankidetzan egin behar da
- Administrazio publikoaren programa guztiak modu bateratuan egon beharko lukete eskura, horretarako izaera digitaleko elkargunean ere pentsa daitezke
- Gai honekin pertsonengana iritxi behar dugu, ahal bada lan mundura sartu baino lehen, hezkuntza sisteman eta familian. Ondorioz, enpresa txiki eta ertainetara iritxiko litzatekeen lan ildoaz gain, pertsonengana iristeko lan ildoa behar dugu, honetarako lanbide heziketa eta unibertsitatea garrantzitsuak izan daitezke

Hauetan oinarrituz, ondorengo irudia prestatu da jadanik prozesuan dauden eragileen rolak jasotzeko.

Lanaren zentzua garatzeko gobernantza eredua

